

Negazionismotik 'negozionismo'-ra



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOPOL ETA EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Negazionismoa enpirikoki egiazta daitekeen errealitate bat onartzeaz iri uko egitea da. Ingurumenaren kasuan, energiaren mugak, petrolioaren gailurra (*peak-oil*) edo klima-aldaketa antropogenikoa ukatzea. Korrante ideologiko indartsu bat dago zeinean korporazio ekonomikoak eta lider politiko ugari sartu daitezkeen. Ukazioaren arrazoi nagusizat, sistema ekonomikoak ezin duela atzerapenik edo deshazkunderik izan, dioskute. Bestela kaosa, denok txarrrago biziko baikara. Aspaldiko partez, dena den, translazio mugimendu bat ari gara ikusten eta negazionismo ekologikoan egon diren eragile askok ekokapitalismorako bidea hartu omen dute. Nire ustez, biraketa honen arrazoiaren artean, bi dira nagusi. Batetik, ingurumenaren, edo hobe esanda, krisi sozioekologikoaren zentralitatea agenda politiko mediatikoan eta, bestetik, zientziak ekologismoari emandako oniritzia.

Zientzia. Uda honetan IPCCtik (*International Panel for Climate Change*, ingelesez) filtratutako txostenak ez du zalantzarik jartzen: deshazkundera ezinbestekoa da larrialdi klimatikoa gainditzeko. Diskurtso zientifikoen, ekologismoaren eta gizarte zibilaren mobilizazio eta presioaren kateatzea inoiz baino argiagoa da, baina ez du bermatzen beharrezko politikak praktikan jarriko direnik. Bizi

garen sistema ekonomikoak, kapitalismoak, atsedetik gabe hazi behar baitu zutik iraun ahal izateko. Eta kapitalismo berdearen edo ekokapitalismoaren bideraezintasuna salatzea ez dago ondo ikusia gure erakunde politikoetan eta unibertsitateetan. Adrián Almazán irakaslearena, adibide argia dugu: Deustuko unibertsitateetik kaleratu berri dute "parrisia" antikapitalista mantentzearen.

Negazionismoa. Juan Borderari eta Antonio Turieli irakurri genien neologismo gutziz egoki hau. Energia berriztagarrien plan erraldoiak edo hidrogenoak sortu dituen inbertsiorako nitxo dirudunak adibide onak dira ikusteko energia fosilen negozioak ez direla bateraezinak energia berriztagarrien garapenarekin. Beste gauza bat da elektrizitatearen prezioa jaistea, edo merkatu energetikoa planifikatzea edota publikatzea. Duela gutxi Aitor Esteban (EAJ) ikusi dugu Madrilgo Kongresuan Iberdrolaren defentsan. Alderdi politiko eta korporazio energetikoen arteko kolaborazioa edo ate birakariaren fenomenoak ekiditen ez diren bitartean, negazionismoa ugaldutako egingo da. Eta ekosistemek kolapsatuko dute, zientzia behin eta berriz esaten ari den moduan. Greta Thunderrek Glasgowen horixe bera baieztatu du. Eta oraindik ere, batzuk diote ez dela antikapitalista. Bai zera! ●

Eguzkitan



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Urriko domeka eguerdi ederra da, freskoa baina eguzkitsua. Ogitara eta egunkaria hartzera irten naiz, igande bazkal aurreko buelta egitera. Hain eguraldi ederra dago, ezen parkeko banku batean jesartzeko gogoa piztu zaidan berripapera irakurtzera. Udazkenean gaude, eta badakigu egun argi hauek aprobetxatu beharrekoak direla.

Halaxe egin dut: bankuan eseri, eta goxo-goxo egunkaria leitu. Bat-batean konturatu naiz igande eguerdi horretan jarleku publiko batean nagoela; parkean egonean, zaintza lanik egiteko ez badut ere; ezer kontsumitu gabe; periodikoa paperean irakurtzen. Irakurtzen. Eus-

karaz. Paperezko egunkaria euskaraz irakurtzen.

Egoeraz kontziente izan naizenean, *outsiderra* sentitu naiz lehen momentuan. Gerora, *zaharrunoa*, beste sasoi batekoa.

Ez dut performance bat egin nahi izan, baina hori dirudi. Inguruan kazeta gutxi ikusten dira, eta ikusten direnak kirol prentsa eta *elperiodico* dira, denak gaztelaniaz.

Kontsumitu ez, eta espazio publikoa okupatu. Definitiboki, periferia naiz eta *demodé* nago.

Haize kontra nabil, baina hain da goxoa (eta erraza) eguzkitan hori egitea! ●